


Zure kamisetaren bidaia

Erakusketaren

GAINEKO GOGOETAK



MADRE CORAJE
De tu compromiso nace la esperanza

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua






C/ Sangüesa 38. La Milagrosa. Pamplona - 31005 Navarra | T. 948 233 289 | navarra@madrecoraje.org

www.madrecoraje.org

Jarraitu:

 www.facebook.com/asociacionmadrecoraje/

 @MCorajeONGD

 @madrecorajeongd

 www.youtube.com/user/madre0coraje

Diseinua eta maketazioa:

basati | maitetxumdiez@gmail.com

Agiri honetan jaso dira “Zure kamisetaren bidaia” erakusketa ikusi dutenek idatzitako gogoetak.

“ Mundua aunitz kutsatzen ari gara eta gauza askotan atzeraka goaz. ”

“ Janaria kutsatuta egoteak txunditu nau gehien. ”

“ Zaindu Planeta!! Gizarte kontsumistan bizi gara, bigarren bitzta eman behar zaie gure jantziei. Arropa erosi behar dugu kontziente izanda eta horrek zer dakarren jakinda. ”

“ Batzuetan, edo hobeki esanik, inoiz ez dugu pentsatzen fabrikazioaren aspektuetan, hain kaltegarriak eta kutsagarriak izanik ere, sinestezina dirudien arren. ”

“ Manipulazio eta koakzio sozialaren aurrean, espiritu kritikoa. Ezaba dezagun alferrikako kontsumoaz sortu den beharra. ”

“ Erakusketa bikaina iruditu zait, oso ongi lortua eta aurkeztua. Egiten duguna baino pixka bat gehiago kontzientziatu behar dugu. Hausnartu eta ekitea. ”

“ Oso interesgarria eta, batez ere, beharrezkoa. Gure planeta hondatzen ari da, eta gutxi egin dezakegun arren, egin beharra dago. ”

“ Ez gara ohartzen ingurumena kutsatzen ari garela, eta horrek kalte handia egiten digula gizakioi zein animaliei. ”

“ Planetaren hondamena gero eta nabarmenagoa da; hobekuntzarako laguntza oro eskertzen da zinez. ”

“ Horrelako erakusketa gehiago behar ditugu, planeta gehiago zaindu behar dugula eta kalterik eragin behar ezin diogula gogoratzeko. Jantzi gutxiago erosi, berrerabili, birziklatu. Eskerrik asko guri informazioa emateagatik. ”

“ Beharrezkoa da denok kontzientziatzea eta mezua helaraztea. Ni oraintxe hasiko naiz! ”

“ Garai honetan, sare sozialek bonbardatuta, moda arloko marka eta influentzer handien ondorioa gara. Beraz, dei egin behar, zentzu kritikoa eta nork bere pentsamendu ez galtzeko. Gora birziklapena, kanpora shein. ”

“ Txundigarria da arropa egiteak zer dakarren jakitea. Garrantzitsua da kontzientziatzea ongi birziklatu behar dela erabiliko ez duguna. Ondorioa: bi aldiz pentsatu erosi aurretik. ”

“ Mundua Jainkoaren oparia da, zaindu ezazu! Erabil ezazu arduraz eta maitasunez, ez dugu huraxe merezi. ”

“ Gaur egun arte ez dut hausnartu ehungintzaren prozesu luzeaz eta zenbat kutsatzen duen.. Oso interesgarria, erakusketa. Arropa gehiago berrerabiltzen hasiko naiz eta ez naiz hain kontsumista izanen. ”

“ Ez gara jabetzen edo ez zaigu interesatzen gure erosketa-bulkada bakoitza alferrikako beharrak eraginda dela. Gehiago itxaron beharko genuke eta errespetatu horrek dakarrena. Eskerrik asko!! ”

“ Oso garrantzitsua da ingurumenarekin eta gizartearekin bat datozen alternatibak bilatzea. ”

“ Nire ustez, erakusketa hau onuragarria da gure gizartearen kontsumismo burugabearen errealitateaz jabetzeko. Eragina izan dezake pentsamolde aldaketan, eta bulkada berria gutxiago erosteko eta 2. eskuko arropa berrerabiltzeko? Pixkana-pixkana... animo eta txalo bero bat kanpaina honi. ”

“ Arropak gu janzteko balio du, ez bakarrik beroa ematen duelako, baizik eta estaltzeko eta besteekiko errespetuagatik. Arropa aprobeztatu eta zaindu egin behar da, ahalik eta gehien iraun dezan. ”

“ Har dezagun kontzientzia, baliteke oraindik garaiz egotea. ”

“ Arras garrantzitsua da gure arroparen atzean dagoen gutzia ezagutzea. Gelditu eta pentsatzea. ”

“Ederki sartzen digute ziria! Gutxi batzuk aberastu daitezten, gure ingurune naturala hondatu dezakegula eragiten digute.”

“Kalitatezko jantziak erabili behar dira berriro, ongi eginak eta luzaroan erabil daitezkeenak.”

“Mundu guztiak kontzientzia izan beharko lukeen zerbeit.”

“Marta naiz, eta uste dut arropa birziklatu behar dela.”

“Nola sumatzen dudan gure arbasoek zeramatzen ilearen falta!!! Kontuz modarekin.”

“Modaren bidez ingurumenari eragiten diogun guztiaz jabetu behar dugu. Ona da jakitea jende aunitz saiatzen dela guri ikusarazten zer dagoen jantzi bakoitzaren atzean, zer xahukeria dagoen, eta dagoen ikaragarria da.”

“Erabiltzea eta botatzea, errealitate gordina.”

“Arropa erosten gustura bazaude... sentitu zaitez askoz ere gusturago planeta zaintzen!!”

“Planeta zaindu behar da, eta hau oso modu ona da. Kontzientzia hartu behar da.”

“Arropa berria ez dugu erosketak konpultsiboaren ondorioz eorsi behar, eta balia dezagun gehiago bigarren eskua eta “modatik kanpo” dagoen gure arropa. Moda zuk egiten duzu.”

“Beharrezkoa da gai hauek jorratzen hastea, kritikoagoak izaten hastea, pauso txikiak ematea eta aurrean dugun iraupen-lasterketa hasi ahal izatea. Jada hasiera eman diogu!”

“Uste dut jendea kontzientziatu beharra dagoela moda jasangarriari heldu behar zaiola; hau da, egin dadila, eta ez dadila soilik xede bat izan.”

“Bigarren bizitza bat emateak eta birziklatzeak... onura dakarkio edo kalte egiten die langileei? Inoiz ez dakit langilearen egoerari lagungarria edo kaltegarria zaion.”

“Garrantzitsua da zenbat kutsatzen den jabetzea.”

“ Bedeinkazioak. ”

“ Ez dakigu zer kalte egiten ari garen planetari hainbesteko kutsadurarekin, kasu honetan ehungintzak eragindakoa. Ohartu beharko genuke zer eskulan erabiltzen duten mundua hobetzen dutela uste duten herrialdeek. ”

“ Ni Madre Corajen jantzen naiz: ez dut hainbeste gastatzen, kalitate hobea (nik aukeratzen dut), besteek botatzen dutena berrerabiltzen dut, ez dut hainbeste kontsumitzen, askotan berria da... Pentsatu! ”

“ Aprobetxatu armairuan daukazuna.
Eman distira zure bizitzari. ”

“ Garrantzitsua da kamiseta baten atzean
zer dagoen jakitea. Kontzientziatu!!! ”

“ Jantzi batek bizitza asko ditu, ikas dezagun
haiek guztiak aprobetxatzen! ”

“ Jakitun izan behar dugu gure ongi jantzi
nahiak gure planetari eragin diezaiokeela. ”

“ Ohituak gaude denbora osoan moda ikustera eta,
ondorioz, ez gara ohartzen zoragarria dela, eta bota
eta xahutzen dugu. Ireki begiak! ”

“ Erakusketa oso ongi dago. Nire etxean asko birziklatzen dugu eta bizitza asko
ematen dizkiogu. Mundu guztia ohartu beharko litzateke horren garrantziaz. ”

“ Beste aukera bat eman behar zaie erabilitako gauzei.
Mundu jasangarriagoaren alde. ”

“ Oso garrantzitsua da jantziak zaintzea. ”

“ Benetan, zer pentsatu handia ematen du, egia baita ez dugula ulertzen atzean
dagoen lan handi guztia. Ni ez naiz modara joatekoa, baina, hala ere,
jakin behar dugu badirela arropa erosteko modu jasangarriak.
Horregatik urrezko 3 arauak erabili behar ditugu mundua hobetzeko. ”

“ Zenbat balio duen gutxi balioa duela dirudien guztiak. ”

“ Zeinen gutxi pentsatzen dugun, edo ezer ez, nondik datozen kontsumitzen ditugun produktuak eta haien prozesu guztia!! Agian, informazioa eskurago bagenu, ez genuke hainbeste kontsumitukon, benetan ez baitugu behar. ”

“ Eskertzen dizuet pertsona bakoitzari irakaskuntza bat ematea. Egiten dugunaz kontzientziatzea; izan ere, jende gutxik dakigu nola birziklatzen den jantzi oro, moda... eta prozesua. Hori guztia arras garrantzitsua iruditu zitzaidan. ”

“ Ekimen ona da modarekin gertatzen denaz eta gure planetari eragiten dionaz jabetzeko. Erabiltzen dugunaren jakitun izan behar dugu, eta arazoaren parte izateari utzi. Has gaitezen mundu berri bat eraikitzen. ”

“ Uste dut arropa aurreztu beharko genukeela erosten eta/edo birziklatzen. #ayudalmundo. ”

“ Jantziak berrerabiltzearen garrantzia, gehien behar dutenei bigarren bizitza bat emateko. ”

“ Laguntza behar duten pertsoneri lagundu behar zaie. ”

“ Jantziak berrerabiltzearen garrantzia bigarren bizitza emateko eta aukera gehien behar duten pertsoneri. ”

“ Kamiseta soil batek giza eskubideen urraketa ekar dezake, Txinan zehar egindako bidaia batean ikusi ahal izan dudanez. Horretaz jabetzea eta arropa ematea/trukatzea da nire ekarpenetza. Kontzientziaz erosi behar dugu!! Guztion artean gure planeta hobetu dezakegu eta etorkizun hobea utz diezaiekegu gure seme-alabei. ”

“ Arras beharrezkoa da horrelako lanak eta proiektuak egitea. Ezjakintasunak ez du laguntzen. Eskerrik asko Madre Corajeri ahalegintzeagatik eta bere aletxoak ekartzeagatik herritarrak sentsibilizatzeko. ”

“ Garrantzitsua da erakusketa honek erakusten digun guztia. Pentsa dezagun eta izan gaitezen kritiko egoera kezkarri honekin. Keinu bakoitzak balio du, has gaitezen MURRIZTEN. Zer logika du gure etxea suntsitzeak? ”

“ Erostera joaten garenean, ez dugu pentsatzen ez non dagoen huraxe ekoizten ari den pertsona, ez zer baldintzatan ari den eta, are gutxiago, zer kutsatzen den. ”

“ Garrantzitsua da gure erabaki komertzialek ingurumenean duten inpaktu handiaz jabetzea. HAUSNARTU!!! ”

“ Arras garrantzitsua da arropa asko erosteak eragiten dituen arazoez jabetzea. Azken produktuari ez ezik, jantzi bakoitzaren atzean dauden faktore guztiei ere erreparatu behar zaie, faktore negatiboak baitituzte, eta ez zara horretaz jabetzen. ”

“ Oso interesgarria. Beharrezkoa da gauza horietan guztietan pentsatzea eta gure bizitzan eta inguruan aldaketak egiten hastea. ”

“ Oso kezagarria da erosten dugun arropa guztiarekin sortzen den kutsadura. ”

“ Eskerrik asko arroparen balioa baloratzen erakusteagatik. Bidaian pentsatzen saiatuko naiz, geldialdi bakoitzean, erabilera hobea emateko. ”

“ Ez naiz modaren mendean sartzen. ”

“ Agenda 2030 ikusi bezain laster, erakusketaren inguruko interesa galdu dut. Gobernuek erabat sustatzen dute funtzionamendu global hori, eta gero kontzientzia apurrak saltzen dizkigute. Ez moral bikoitzari, ez gaitzezen haien jokoan sartu. Ez inongo gobernu globali. ”

“ Hobe da merezi duten 5 kamiseta, ezik 20 merke eta 50ek adina kutsatzen dutenak baino. Arazoa hondakinen kontrolean dago, baina zerbait hobea egin dezakegu. ”

“ Ez nekien kamiseta batek hainbesteko inpaktua sortzen zuenik, gorputzaldi txarra geratu zait. Ama maitea!
ESKERRIK ASKO begiak eta beste zentzumenak irekitzeagatik. ”

“ Oso interesgarria eta polita. Zer mundutan bizi nahi dugun pentsatu behar dugu, eta gero, gutxiagorekin bizi:
Gutxiago kontsumitzea
Gauzak birziklatzea
Arropa trukitzea. ”

“ Jarduera interesgarria eta zoragarria. ”

“ Zenbat kutsadura dagoen kamiseta baten bidaia osoaren atzean. Gehiago kontzientziatu behar dugu, bizi garen munduari buelta emateko lana egin ahal izateko. ”

“ Zenbat bidegabekeria!! Zeinen baldintza txarrak dituzten sektore horretako langileek. ”

“ Izugarria! Oso interesgarria iruditu zait erakusketa. Horrelako erakusketak behar dira. Baina, zer egin behar dugu? Non eta nola erosi behar dugu arropa? ”

“ Oso ekimen interesgarria eta erakargarria, pertsona guztiak kontsumoaren larritasunaz kontzientziazteko. Zeure buruari kalte egiten ari zara! ”

“ Uste dut ehungintza-industria konprometituagoa egin behar dugula gizarteari eta ingurumenenari begira. ”

“ Ehungintzaren mundua neurri handi batean gure planeta suntsitzen laguntzen duen mundua da. Horretaz gehiago jabetu behar dugu, eta gure kontsumoa murrizteko moduak bilatu. Ikasi egin behar dugu, eta jabetu behar dugu ez dela asko behar bizimodu harmoniatsua eta ongizatean bizitzeko. ”

“ Ikaragarria, eskerrik asko! ”

“ Oso garrantzitsua da tailer honek ahalbidetu duen hausnarketa. Ez gara konturatzen gure ekintzek duten eragin negatiboaz. ”

“ Bigarren eskuko jantzi gehiago erosi behar dugu? Zein da egoera horri aurre egiteko modua? ”

“ Oso mundu kontsumistan murgilduta bizi gara. Bizitzaren legea da erosi eta botatzea, erosi eta botatzea... Eta hori egiten ez duena gizartetik kanpo geratzen da. Zerbait egin behar dugu honekin guztiarekin amaitzeko. ”

“ Oso interesgarria da modaren atzean dagoen guztia jakitea. Gauza hauek guztiak ahazten ari gara. Eskerrik asko gogoratzeagatik!! ”

“ Ikaragarria kamiseta batek egiten duen bidea. Zerbait kontzientziaztea, mundua aldatzen joateko. ”

“ Zenbat kutsadura. Izugarria! ”

“ Oso interesgarria da azalpena. Oso beharrezkoa da, baina zer egin behar dugu? ”

“ Kapitalismoak horra eramaten gaitu, inoiz amaitzen ez den gurpila, eta ez du axolarik aurretik zer eramaten dugun. Horren aurrean, antolatu egin behar dugu,

zapalkuntzetan eta desberdintasunetan oinarritutako sistema amaitu ahal izateko. Antola gaitezen! ”

“ Urrezko hiru arauak:
Errefusatu, Murriztu, Birziklatu. ”

“ Zenbat kutsatzen duen
ardi-larruz egindako arropak. ”

“ Arropa gutxiago eta autoestimu gehiago
(eta instagram gutxiago, mesedez) ”

“ Nabari dut nire hostotxoak askatzen ari zaizkidala,
zuhaitz bat udazkenean bezala. ”

“ Sinestezina da gure kamisetaren atzean dagoen guztia. ”

“ Bai erakusketa interesgarria. Horrelako gauza
gehiago behar ditugu dena birpentsatu ahal izateko. ”

“ Gustatu zait. ”

“ Eskerrik asko erakusketagatik. Horren gaineko kontzientzia nuen, baina askoz
kontzientziatuago noa. Arropa erosten dudan hurrengoan bi aldiz pentsatuko dut. ”

“ Eskerrik asko kontzientziazio lanagatik!!! Alternatiben falta sumatzen dut, hau da,
murrizteaz gain, zer dagoen herritar kontzientziatuaren eskura, baina zerbait erraza
nahi duena. Lan ona eta eskerrik asko zuen lanagatik. PD: Zangoza kalean ikusiko
dugu elkar, bisita egiten dizuegun horietakoak gara. ”

“ Guau, zenbat kutsadura. Aurre egin behar diogu. Hori gainera datorkigu, eta
geldiarazten ez badugu, erraldoi egingo den elur-bola bat izango da. ”

“ Zenbat ur behar den, horixe izan zait deigarriena, nik uste.
Oso deigarria egin zait, halaber, bakero higituak egingo baditugu,
bizitzarako kaltegarriak diren substantziak behar direla. ”

“ Gertatzen denaz jakitun izan behar dugu, ekiteko. ”

“ Txundigarria zait arropa egiten duten langileen % 87 emakumeak izatea. ”

“ Harritu eta ikaratu ere egiten nau nire kamisetaren atzean esklabo bat egoteak. Handitan moda-diseinatzaile izan nahi dut aspalditik, eta ehungintzak eragiten duen inpaktua murriztea gustatuko litzaidake. ”

“ Arropa erosten dugu haren jatorria jakin gabe. ”

“ Ni ez naiz arropa asko erosten duten pertsonetako bat, baina uste dut daukadan eta erabiltzen ez dudan arropa birziklatu beharko nukeela. ”

“ Nik ez dut arropa asko erosten, arropa erosten dudanean da amak behartzen nauelako. Harritu egin nau hainbeste ur behar izateak. ”

“ Asko gustatu zait, oso ongi dago. ”

“ Sinestezina da arropak zer prozesu duen. ”

“ Ez dugu kamiseta gehiagorik behar, birziklatu behar dugu. ”

“ Gehiago jabetu behar dugu kamiseta bat sortzen denean gertatzen denaz. ”

“ Arroparen bidaia dakidan honetan, gogoan darabilt orain munduan pentsa dezakedala, bai eta kamiseta baten atzean dagoen prozesuan ere. ”

“ Txunditu egin nau arropa fabrikatzeak hainbeste kutsatzeak. Banekien kutsatzen zuela, baina ez nuen uste hainbesterako zenik. ”

“ Bidaia asko gustatu zait; izan ere, arropa egiteko erabiltzen diren usain eta materialak deskubritzeak lagundu dit neure buruari galdetzen arropa guztiak duen prozesuaz. ”

“ Harritu egin nau nire kamisetak egin behar izan duen bidaiak eta horrek zer ondoio dituen. Harrituta gelditu naiz. ”

“ Kutsadura egitate bat da, ezin dugu bat-batean gelditu, poliki joan behar da. ”

“ Niri jakin-mina piztu dit, batez ere bideoan agertzen diren ehunekoetan. ”

“ Gustatu zait, baina jantzi bat egiteko behar den guztiak harritu nau. ”

“ Arropari buruzko bideo bat eta audio bat ikusi ditugu, baita arropa nola egiten den eta non amaitzen den hausnartzeko jarduera batzuk ere. ”

“ Deigarriena usainak izan dira, batzuek usain txarra zuten. ”

“ Usainak usaindu ditugunean ohartu naiz nola egiten den gure arropa. ”

“ Orain badakit nondik datorren nire kamiseta eta ez dela hainbeste kontsumitu behar eta ez dela hainbeste gauza erosi behar. ”

“ Apeta bat erosteak zer eragiten duen konturatu naiz. ”

“ Galdera asko egin dizkiogu geure buruari. Arropa nola egiten den eta zer ondorio dituen ikusi dugu. ”

“ Ez da erosi behar erosteagatik. ”

“ Uste dut ikusi berri duguna oso interesgarria dela, horrela badakigulako gure arropa nondik datorren eta non amaitzen den. ”

“ Gure kamisetak merkeak dira, baina asko kostatzen dira! ”

“ Kamiseta batek zuk baino bizitza gehiago izan dezake. ”

“ Asko gustatu zait eta asko hausnartu dut. Gainera, garrantzitsua da hori guztia jakitea. ”

“ Bota aurretik oparitu. ”

“ Harritu egin nau zenbat ur behar den kotoizko arropa egiteko. ”

“ Nik uste dut haurren esplotazioak legez kanpokoak izan behar duela. ”

“ Kamisetak oso kutsakorrek dira eta horrela oso gaizki bukatuko dugu. Ideia hobea da zure komunitatean egindako kamisetak erostea. ”

“ Deigarri egin zait arropa egiteko zenbat material behar den. ”

“ Gustatu zait, hori guztia ez nekielako, eta esperimientua gustatu zait. ”

“ Ez nekien ehungintzako langileen % 80 emakumeak zirenik. Halaber, zer pauso behar ziren kamiseta bat egiteko. ”

“ Batzuetan beharrik izan gabe gabe erosten dut arropa, eta hori zen ez nekielako zenbat kutsatzen duen. ”

“ Interesgarria da eta asko hausnartu dut. ”

“ Sinestezina iruditzen zait arropa horrela egitea. ”

“ Pasaporte batzuk banatu dizkigute eta 5 zentzumenen inguruko jarduera bat egin dugu. ”

“ Eskerrik asko erakusketa honengatik. Oso beharrezkoa da kontsumo-erritmo latz horri buruz pentsaraztea. Gelditu eta gure zilborretik haratago begiratu behar dugu. Eguberriak datozen honetan, horixe aldatzen has gaitezke. ”

“ Asko gustatu zait eta oso ongi azaldu dute. ”

“ Egiten duguna etxera irits daiteke (zaborra). ”

“ Zergatik dira emakumeak guretzat eta guregatik lan egiten dutenak? Ez da beharrezkoa 2.000 litro ur kamiseta bakar baterako. Ez gara ohartzen kamisetak egiten lan egiten duten emakumeek kamiseta horietako bat ere ez dutela. ”

“ Niri deigarriena arropa izan zait, material asko behar direlako, hala nola ura, plastikoak eta askoz ere gehiago... ”

“ Ikasi dut zenbat kutsatzen duen kamiseta bat egiteak, gutxienez 2.000 litro ur kostatzen da, usain txarra du, ibaiak hainbat kolorez tindatzen ditu eta beste ondorio aunitz. Horren guztiaren errudun sentitzen naiz; gainera, behar dudana baino arropa gehiago daukat. ”

“ Ideia ona iruditu zait hau zentzumenen bidez lantzea. Gainera, bisita honek gogoeta handia eragin dit gure gizartearen kontsumismoari buruz eta horrek gure planetari egiten dion kalte guztiari buruz. Oso txundigarria iruditu zait kamiseta bat bakarrik egiteko behar den ur kopurua, baita horren ondorioz sortzen ditugun hondakin guztiak ere. Eskerrik asko! ”

“ Arropako material asko deskubritu ditut, eta harritu egin nau zenbat zabor sortzen ditugun, zenbateko kutsadurak. ”

“ Behar ditugunak baino kamiseta gehiago erabiltzen ditugu, eta bakarra egiteko prozesu asko pasatu behar dira. ”

“ Munduari bidali nahi diodan mezua da gehiago birziklatu behar dugula, gehiago erabil eta ez dugula hainbeste kutsatu behar. ”

“ 200 gramo kamiseta egiteko, 2.000 litro ur... ”

“ Harritu egin nau arropa zein gaizki tratatzen den. ”

“ Gauza batzuek heriotza-usaina dute. ”

“ Ez nekien arropak hainbeste kutsatzen zuenik. Hemendik aurrera behar dudana bakarrik erosiko dut. Txundituta utzi nau jantzi baterako egin behar den guztiak. ”

“ Oso interesgarria iruditu zait jantziak ukitu ahal izatea eta material bakoitza nolakoa den jakitea. Bideoa gustatu zait, arropari buruzko datuak eman dizkidalako, ez bainuen horren berri. ”

“ Izugarri deigarria egin zait zeinen usain txarra duen arropak botatzen dugunean; jendearen puzkerrek baino usain txarragoa du. Halaber, harritu egin nau arropa aukeratzeko behar izan zuen denborak. ”

“ Deigarriena kamiseta bat ekoizteko prozesuarekin zerikusia duten usainak izan dira eta langileen % 80 emakumeak izatea. ”

“ Gustuagatik erosten dugu, eta nahi ez dugunean bota egiten dugu. Hori oso gaizki dauden zokoetara doa eta usain txarra darie. ”

“ Kamiseta bat egiteak asko kostatzen du. Kamiseta-fabrikatzaileei oso gutxi ordaintzen zaie. ”

“ Deigarria egin zait konturatzea behar dudana baino arropa gehiago daukadala. ”

“ Arropari hainbat erabilera eman behar zaizkio. Ez zaizu gertatzen armairura zoazela eta ez dakizula zer jantzi? ”

“ Kamiseta batek bi aurpegi ditu, polita erosten dugunean eta itsusia, hau da, kutsadura, hondakinak, sunsiket... ”

“ Interesgarria da arropari buruz gehiago jakitea. ”

“ Egiazki arropa gehiago erosteko beharra al daukat? Nondik datorren begiratu genezake, eta hain urrutitik badator, zergatik erosten dugun galdetzea geure buruari. ”

“ Gaizki sentitzen naiz, gauza asko gastatzen baitira kamiseta bat egiteko. ”

“ Ikaragarria da kamiseta batek atzean duen prozesua. ”

“ Txunditu egin nau bai hainbeste arropa botatzeak, bai hainbeste kutsatzen duten jantziak eta materialak egoteak. ”

“ Ez nekien hainbeste litro ur behar zirenik jantzi bakar bat egiteko. Ez nekien arropa sortzen dutenei hain gutxi ordaintzen zitzaienik. ”

“ Harritu egin nau zenbat litro ur behar diren. ”

“ Gehien harritu nauena da ibai gorriak izatea. ”

“ Gehien harritu nauena da zenbat ur behar den kamiseta bat egiteko, eta likido horri darion usaina. ”

“ Konturatu naiz zabortegiek usain txar-txarra dutela. ”

“ Ikasi dut, kamiseta bat lortzeko, gauza asko gastatu behar direla (ura, lurrak...). Pertsona batzuek atsedetik gabe lan egiten dute. Usaindu dugunak harritu egin nau, ez bainuen uste usain horiek guztiak kamisetaren prozesuan zeudenik. Esperientzia gustatu zait eta ikasi dut. ”

“ Erakusketa oso ongi dago, harritu egin nau ibaiak arroparen tinte zutsatuta egoteak. ”

“ Gure kamiseta nondik pasatzen den ikasi dut, eta jantzi bat izateko gastatu behar den guztia. Material asko gastatzen dugu; beti emakumeak izaten dira, eta ez dira gure inguruko herrialdeetan egiten, ez direlako onartzen emakumezko langileek dituzten baldintza txarrak. ”

“Jarduera honetan ikasi dut gehiegi kontsumitzen dugula eta bilioika litro ur gastatzen ditugula kamiseta bat egiteko, eta langileak esplotatzen dituztela arropa merkeagoa izan dezagun. Horri esker, ez dut arropan zoro-zoroan gastatuko.”

“Flasko horia usaintzea izan zait deigarriena eta zenbat ur behar den kamiseta bat egiteko.”

“Ikasi dugu zeintzuk diren kamisetak egiteko behar diren gauzak, hausnartzeko galdera batzuk eta kamiseta bat nola egiten den adierazten duten usain batzuk. Ur asko erabiltzen da kamiseta bat egiteko; oraingoz, nire ekarpena da nire arropa guztia nire lehengusu txikienei ematea.”

“Ikasi dut zer behar den eta zenbat gastatzen den kamiseta bakar bat egiteko.”

“Deigarriena izan da zenbat ur gastatzen den kamiseta fluoreszentea egiteko. Ikasi dut nire arropa gehiago baloratzen eta zaintzen, kontuz ibili behar baita kutsadurarekin. Gainera, oso dibertigarria izan da gauza berriak ikastea. Hondakin asko erabili ditut bizitzan zehar eta hori aldatuko da.”

“Ikasi dut arropa ez dela josten bakarrik sortzen. Asko kutsatzen duela ere ikasi dut, eta gaizki sentitu naiz erabiltzen den ur guztiaz eta dauden zabortegei guztiez konturatzean. Orain, ahalik eta arropa gutxien erosten saiatuko naiz. Eskerrik asko!”

“Ez nuen espero hainbeste ur gastatzea kamiseta bat egiteko eta langileen % 80 emakumeak izatea.”

“Erakusketa honetan gauza asko ikasi ditugu, eta horietatik deigarriena esaldi hau izan da: “9.000 bilioi litro ur erabiltzen dira kamiseta koloretsua eta fluoreszentea egiteko”. Halaber, zabortegietako usaina ere izan zait deigarria.”

“Erakusketaren gaineko hausnarketak zer pentsatu handia eman dit, inork nahi ez duen arropa asko dagoelako eta, gainera, arropa hori zabortegian amaitzen da eta horrek izugarri kutsatzen du.”

“Nik uste dut kamiseta egitea ez dela hain erraza. Leku batzuetan oso usain txarra dago; zabortegian, esaterako. Ez dut imajinatu nahi ere zer den leku horietatik guztietatik hurbil bizitzea.”

“Gustatu egin zait erakusketa, eta gustuaren eta usainen galdera horiek izan dira onena; batez ere zabortegiena. Oso interesgarria iruditu zait 3 atalena, eta berriro egingo nuke. Ikasi dut ez dela hainbeste kontsumitu behar.”

“ Arroparekin zerikusia duten hainbat gauza ikasi ditut. Deigarriena izan da kamiseta fosforito bat egiteko 9.000 milioi litro ur behar direla. Deigarria iruditu zait, halaber, arropa egiten duten pertsonen % 80 emakumeak izatea. ”

“ Arropa erosten dugu nondik datorren jakin gabe, ezta nor dagoen atzean ere, zuk jantzi hori eros dezazun. Gustura jakingo nuke nondik datorren nire arropa. ”

“ Zein garrantzitsua den jakitea, ekiteko. Zeinen garrantzitsua den sentitzea, aldatzeko. Deshazi gaitezen, mesedez! ”

“ Saia zaitetz erosi aurretik pentsatzen ea benetan hori behar duzun edo erosten duzun nahi duzulako edo denek eramaten dutelako. ”



“ Eskerrik asko ezagutzengatik! Oso ideia ona 5 zentzumenekin jolastea. Ea lortzen dugun guztion artean arropa gutxiago kontsumitzea eta gutxiagorekin konformatzea! Gutxiago gehiago baita! ”

“ Laburbilduz, arroparen gaia gai arriskutsua da ekosistemarentzat, kontuz tratatzen ez badugu. ”

“ Udan eta etxean biluzik joan behar da. Bigarren eskuko arropa erostea. ”

“ Nahi duzuna jakinda erostea, eta arduratsua izatea. ”

“ Harrigarria da zenbat ur behar den. ”

“ Deigarria izan zait zenbat oihal mota dauden, bai eta zenbat usain dauden ere. ”

“ Sinestezina da zenbat eta zenbat material erabiltzen diren. ”

“ Gainetik kendu behar dugu arropa pilatzeko behar handi hori, askatzen gaitu eta askeago egiten gaitu. ”

“ Ez ditugu behar hainbeste gauza, kontrakoa sinetsarazten badigute ere. Jabetza iragankorra da; esperientzia, berriz, haien gaineko oroitzapenak irauten duena. ”

“ Inoiz ez nuen imajinatu zenbat gauza dauden arropa munduaren atzean: kutsadura, haurren esplotazioa... ”

“ Ez nekien jantzi bat egiteak hainbesteko kalterik eragiten zionik ekosistemari. Nire ustez, denok horretaz jabetzen bagara, agian huraxe ekologikoagoa izatea lortuko genuke. ”

“ Ez zait ongi iruditzen bakeroak higitzeko arnas arazoak dituen jendea egotea. Holakoak erosteari uzten badiogu, ez da modan egongo eta jende batzuek sufritzeari utziko diote. ”


“ Kaixo, post hau benetan ona da eta gauza asko ikasi ditut. ”

“ Uste dut moda azkarra gero eta normalizatuagoa dagoela, eta gaur egun sare sozialetan eta online dendekin errazagoa da horrelako jantziak eskuratzea. Oso interesgarria iruditzen zait ikusi dudana guztia, datu horietako asko ezagutzen ez nituelako, eta horrek arropen bigarren bitza bat ematearen garrantzia birplanteatzea eragin dit. Ezinbestekoa iruditzen zait jende askok ezagutzen ez duen errealitate horri ikusgarritasuna ematea, eta, nire aldetik, saiatuko naiz benetan behar ez dudana arropa gutxiago kontsumitzen, eta, hala badagokio, bigarren eskuko dendetan kontsumitzen ahaleginduko naiz, bai eta nire esperientzia nire inguru hurbilenarekin partekatzen ere. ”

“ Tuntunak bagina bezala engainatzen gaituzte, arropa erosteak zoriona emango digula sinetsaraziz. Beren poltsikoak diruz bete ditzaten, beren fabrikek gizateriari eragiten dioten kalte guztia erakutsi gabe. ”

“ Ikaragarria da kamiseta baten atzean dagoen bidaia luzea... kutsadura guztia, emakume langileen baldintzak... ”





MADRE CORAJE

De tu compromiso nace la esperanza

C/ Sangüesa 38. La Milagrosa. Pamplona
31005 Navarra | T. 948 233 289 | navarra@madrecoraje.org

www.madrecoraje.org